

Bengoetxeako Anbrosio. 1552-1625

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia
Idazle ikertzailea

Hogeigarren mendean ikertzaile andana batek Antxieta eta bere eskola aztertzean, Bengoetxeako Anbrosioren ikerketa gorantz abiatu da, nire hau urrats bat delarik.

Lehenik, Anbrosio, Alkiza eta Asteasuko bere garai eta ingurunean kokatu dut. Ondoren, Anbrosioren jaiotetxea, sendia eta ahaideak, Asteasuko bere etxebizitza, eskulturagintza eta azken testamentuaren transkribaketa osoa eman eta landuz, zenbait alderdi eta ilungune argitu ditut.

Azkenik, bere testamentuaren xehetasunak azaldu ostean, ondorio batzuetara iritsi naiz, eta Alkizako eskultore baliotsuenaren maila artistikoa honelaxe nabarmendu dut: Antxieta maisuaren ildo artistikoa gaindituz, bide berria urratu zuen eta gaur nortasun aparta ematen dio, bere alorrean eta garaian lehen mailako izar bilakatzera inokoa.

As a consequence of studies on Antxieta and the school he created, investigation on Bengoetxeako Anbrosio has gone up in the 20th century. This work of mine, is a simple step within it.

First of all, I have situated Anbrosio in the times and places of Alkiza and Asteasu. Then, I have provided some information about the house where he was born, his family and relatives, his house in Asteasu, his sculpture, and I have offered the transcription of his last will, making clear some important aspects and shadows.

Finally, after giving the details of his will, I have reached some conclusions, pointing up the valuable sculptural level of this sculptor of Alkiza in the following way: overcoming the artistic trends of the master Antxieta, he developed his own line and nowadays he is given a notable personality in his speciality and time. He is considered a top-level star.

1. Bengoetxeako Anbrosioren bizitza eta obraren aztertzaileak

Bengoetxeako Anbrosiori buruz ihardutean, lehen-lehenik bi ikertzaileen¹ izenak datozkit burura, Sebastián Insausti eta María A. Arrazola. Bi idazle horiek, bakoitzak bere garai eta alorrean noski, Bengoetxeako Anbrosioren bizitza eta obra ikertu zuten; berari buruz argitasunak eman eta plazaratu zizkiguten mende honen erdialdera. Hain zuzen, 1953an hasi eta hurrengo hamarkadan, zehazkiago 1968an, ordurarteko ikertzaileen hutsak zuzendu eta eskultore alkizarraren maila artistikoari bere balioa eman zioten.

1.1. Bengoetxeako Anbrosio alkizarraren balio artistikoaren aitortzea

Sebastián Insaustik, 1950eko hamarkadan, Anbrosioren jaioterri, ezkontza-hitzarmen, testamentu eta maila artistikoaz bi artikulu idatzi zituen (Insausti 1953 eta Insausti 1957). Eskultore alkizarrari buruz idatzi dena aztertzerakoan, aipatu artikulu horiek mugarririk historiko izan ziren zenbait arlotan, nire ustez.

José Canon Aznar idazleak, 1943an, beste datu batzuen artean, hauxe idatzi zuen:

Anbrosio de Bengoechea (...) residió también en Asteasu, de donde era natural y quizá sea suya la obra de esta parroquia atribuida a Ancheta².

Idazle honek dudak zituen Asteasuko erretaula zaharraz, eta Bengoetxearen dokumentu askotan agertzen den bezala, «era natural de Asteasu», hau da, bizi zen herrian jaio zela esan

zuen. Sebastián Insaustik dokumentu fidagarriak Alkizan jaio zela frogatu zuen arren, asteasuarra deituko zitzaion behin baino gehiagotan, «natural de Asteasu», alegia.

José María Huartek, 1925ean, Juan de Antxietari buruzko liburua idatzi zuenean (Huarte 1925: 15), azpeitiar eskultore ospetsuaren ikasle ezagutzat eman zuen Bengoetxeako Anbrosio. Ideia hori handik aurrera denek errepikatu eta defendatu dute, hau da, Antxietaren ikaslea eta jarraitzailea izan zela, Antxieta lehen mailara gorendu eta bere ondorengo eta eskolakoei itzal eginez (Biurrun 1934-1935: 285-286).

José Canon Aznarrek ere, 1943an, Juan de Antxietari buruzko obra idatzitakoan, hauxe defendatu zuen:

Pero es lo cierto que todo el arte navarro de este final del siglo y de casi todo el siguiente, está encadenado al formalismo de Ancheta. Y casi siempre con tal maestría y fidelidad que sin prueba documental nos sentimos inclinados a describir a Ancheta obras que son de sus discípulos e imitadores. Tenemos indicios de que su taller era copioso en discípulos de gran talento. Cuando ellos se encargaban de continuar obras del maestro, las ejecutan con tal maestría que es difícil señalar su aportación personal. Tal es el caso de González de San Pedro y de Bengoechea, insignes escultores y oficiales de su taller (Canon 1943: 81).

Sebastián Insausti, ordea, 1953an, Antxieta handiaren balioa gutxietsi gabe, Bengoetxeako Anbrosioren alde atera zen (Insausti 1953: 542). Horretarako, Insausti zertan oinarritu zen

1. Hirugarren baten erreferentzia ere egin beharko nuke, hain zuzen, G. Weise alemaniarrena.
2. Idazle batzuek Ancheta idazten duten eran, beste batzuek Ancheta jarri ohi dute.

erakusteko alde batetik eta bestetik zenbait euskal artistari buruz berak zituen kezka emango ditut hemen.

Jovellanosen Gaspar Melchor (1744-1811) Tolosara etorri eta San Frantzisko elizako Pietate izeneko kapera ikustean (ez dago data zehatzik) txundituta geratu eta ikusitakoaz harrigarritzko laudoriozko kritika egin zuela esan zigun Insaustik aipatu artikuluan. Hara bertan Jovellanosen zenbait baieztapen:

...pero lo que sorprende y causa una admiración extraordinaria es el retablo de la Piedad, que está en una capilla al lado de la Epístola frente al púlpito. En el embasamiento hay una bellísima medalla que representa en medio relieve el entierro del Salvador en figuras de la mitad del natural: no puedo ponderar bastantemente cuánto me agradó esta escultura, muy superior en el dibujo, en el gusto, en la expresión y en la buena y delicada ejecución a cuanto he visto en España...

Jovellanosen hitz horiek Insausti kezkarazi egin zuten, honen ustez Pietatea izeneko erretaula Bengoetxearena baitzen. Hau, anartean, Antxieta-
ren ikasle hutsa zen kritikarien artean, eta dei kezkatu hau zabaldu zuen 1955ean bere artikularen bidez:

Ambrosio de Bengoechea es, pues, el autor de este retablo de la capilla de la Piedad de San Francisco, que le coloca por encima de Gregorio Hernández y Juan de Juni, a la altura de Alonso Cano. No hay que ponderar lo que este juicio de Jovellanos, aunque se admita que encierra un punto de exageración, importa para mover a los estudiosos del arte local a concentrar sus afanes por estos derroteros. No podremos repetir la excusa de que nuestra tierra no dio

artistas de valer fuera de Anchieta para justificar el desprecio en que les tenemos.

Sebastián Insaustik, Bengoetxearen ezkontz hitzarmena, testamentua eta dokumentazio oparoa ere aurkitu eta berorien berri eman zuen hamarkada hartan.

Ondoren, 1960ko hamarkadan María A. Arrazolak tesi doktoral hau egin zuen (Arrazola 1988): *Renacimiento en Guipuzcoa. Pizkundea Gipuzkoan, bai Arkitekturaren, bai Eskulturaren*⁸. María A. Arrazolak ikertu zuen garai eta estilokoa izan zenez Bengoetxeako Anbrosioren obra, tesi horretan luze eta zabal aztertu zuen eskultore alkizarra. Jose I. Tellecheak, historiako nire irakasle ohiak, Arrazolaren aipatu liburuei, hots, 1988ko bigarren argitalpenekoei egin zien hitzaurreko hitzok aldatu ditut hona (Arrazola 1988: 8):

Si el gran escultor azpeitiano Anchieta gozaba de merecido renombre (...), otros muchos estaban necesitados de atención y resurgen en estas páginas ennoblecidos, como los Araoz, Bengoeche, Larrea, Iriarte y otros tantos...

Arrazolaren orrietan eskultore alkizarra nabarmenki goratua izan zenez, Bengoetxeako Anbrosioren bizitza eta obra adierazteko oinarrizko liburutzat erabili dut, batez ere Arrazolaren II. liburukia, eskulturari buruzkoa.

Nik, lan honetan, neure aldetik zertxobait gehitu nahi izan diot Anbrosioren jaiotetxe, sendi, ahaide eta Alkizarako egin zuen sagraioari buruz, Anbrosioren garaiko eta ingurune hainbat datu aurrez landuak eta ezagunak baintuen.

2. Bengoetxeako Anbrosioren garaia eta ingurunea Alkiza eta Asteasun

Anbrosioren garaia esatean, 1552-1625 urteez ari naiz eta inguruneari dagokionez, berriz, bi herri-auzoetara, Asteasu, Aiztondoko buru eta Alkiza, Donostiako auzo nahiz San Martin parrokiara mugatuko naiz batik bat. Badakit Bengoetxeako Anbrozio ingurune horretatik at ere ibili zela.

2.1. Alkiza Donostiako auzo eta San Martin parrokia

Alkiza izeneko Lurra edo Unibertsi-tatea Donostiaren mendeko izatera pasa zen 1450/1470etik 1731ra arte. Anbrosioren garaian, beraz, ez zuen udal autonomiarik eta udaletxerik, baina San Juanetan urtero hautatzen zituen juradu bat eta hiru erregidore. Bengoetxeako Anbrosioren jaiotetxea ere behin baino gehiagotan ibili zen Kontzejuko ardura horiek in loturik.

Garai hartan, 1610. urtea baino lehen, Alkizak ez zuen udaletxerik, nire ustez. Urte horretan Alkizako erretoretxean sute bat izan zen eta han desagertu ziren bai parrokiako bai herriko paper guztiak³. Notario aurrean egiten zituen hauteskundeak Kontzejuak, baina batzarrak elizaurrean gauzatzen ziren.

Garai hartako Asteasuko eskribauek, eta batez ere bi Iturrietatarrek, Domingo nahiz Bartolomek utzitako aktetan Alkiza eta Asteasuko berri asko dago. Kontuan izan behar da bi notario hauek

oso erlazionaturik egon zirela Anbrosiorekin, izan ere, honen emaztea Iturrieta baitzen. Eskribau horien legajoetatik eta Iruñeko Gotzaindegiko Artxibotik ateratako dokumentuetatik Alkizako baserri eta etxeen zerrenda osatu dut. Alkizak 1600. urte inguruan bazituen 55 bat etxebizitza; beraz, 275en bat biztanlera iritsiko zen (Piquero 1991: 32-34).

Gipuzkoako Batzar Orokorrek 1515eko azaroan erabaki batzuk hartu zituzten eta Alkizari zegokion erabaki batetik ondorio batzuk atera ditut. Alkizak, Urnietak eta Adunak, biek adina zerga ordaintzen bazuen, eta Hondarribiaren herena, horrek esan nahi du bazuela indar ekonomiko bat, nahiz auzo izan. Kontzejuak eraiki berria zuen Egurrola burdinola eta horren eta beste zenbaiten diru sarrerak bazituen.

2.2. Alkizako San Martin parrokia, Bengoetxeako Anbrosioren garaian

Alkizako San Martin parrokiako erretoreak herriak hautatzen zituen; hobeki eta zehatzago esanda, Alkizako etxeen jabeek osatzen zuten Patronatuak aukeratzen zituen San Martin parrokiako erretoreak eta ondoren Iruñeko gotzainari aurkeztu ohi zizkion, honek bere izendapena eman ziezaien. Bi hautagai aurkeztuz gero, Erromari zegokion azken hitza⁴.

Anbrosioren garaiko erretore batzuk hauek izan ziren: Urrutiako Juan erretorea hil berria zen 1569. urtean. Handik hamahiru urtera, 1583an, Garmendiako Jeronimo hil eta Arpideko Juan

3. Oizartzungo Udal Artxiboa, AI, IEMI, SS, 209, 3.

4. Gai honi buruz, Patronatuaren araudiez, 1610ean erretore-etxea erretzeari buruz eta abarrez, dokumentazio ederra dago Alkizako Udal Artxiboan, Frantzisko I. Larrunbide notarioak 1749-X-10ean egina. Alkizako erretoreen ahalmenez eta erretoreen hautaketaz Udalak autoa igorri zion Korrejidoreari. AUA, Kaxa 9, C.yO., 1749. urtea.

izendatu zuten, honi Urrutiako Adrianek jarraituko ziolarik⁵. Arpideko Juanen hauteskundeetan berrogeita bi etxetako hautesleen artean ez dago Bengoetxea baserriko botorik, botoa ematea libre zen eta. Dena dela, bi azken erretore hauek oso erlazionaturik ibili ziren Bengotxeako Anbrosiorekin. Biak izan ziren garrantzitsuak. Arpideko Juanek, bere izeneko baserrian jaioa baitzen, Alkizako San Martin elizaren egitura bere den-boran eraikitzea amaitu eta harremanak izan zituen Antxieta eta Bengoetxea eskultoreekin.

Arpideko Juanek fundatu zuen alki-zarrentzat Miserikordia izeneko Kutxa. Fundazio horrek Alkizako baserriar behartsuak lagundu zituen. Bere heriotza, 1610ean gauzatu zen erretore-etxeke sutearekin bateratsu gertatu zen. Ez dut data zehatzik aurkitu.

Alkizako San Martin elizaren egitura garai hartan amaitu zen eta bi erretore hauek, Arpideko Juanek eta honi jarraituko zion Urrutiako Adrianek 1596an sinatu zuten dokumentuan Alkizako lehenagoko Liburuaren berri ematen zaigu:

Asi mismo se da por condición que las Personas que devieren de tomar la dicha obra ayan de tomar y tomen en Recivos de la dicha iglesia (...) segun y como se contiene en el Libro de la Iglesia y con estas condiciones se dara la obra de la dicha iglesia⁶.

Urrutiako Adrian, 1610etik 1622ra Alkizako erretore izan zen, lehen urtean

salaketak izan zituen arren⁷. Alkiza-ko San Martin parrokiako Sakramentu Liburuak 1610ean hasteaz gain, sutearen ondorengo erretore-etxearen berrikuntza, “casa de abadía” deituarena bere garaian egin zuen⁸.

Garai hartako Iturrieta notarioen dokumentuetan lekukotasuna sarritan eman eta Bengoetxeako Anbrosioren testamentuan ere albazea-lanetan aritu zen Urrutiako Adrian⁹.

Alkizan, garai hartan bazen Santiago izeneko ermita, Anbrosiok ospitale deitua. L.P. Peña Santiagok (1992) horretaz teoria hau defendatu zuen, alegia, bazirela Gipuzkoa iparraldetik hegoaldera mendiz zeharkatzen zituzten Santiagoko bideak. Ideia hori Bengoetxeako Anbrosioren testamentuko limosna emateak indartu egin zuen.

2.3. Asteasu, Aiztondoko buru

Asteasu, garai hartan, Aiztondo Alkatetza Nagusiko buru zen, Larraul, Aduna, Sorabila, Urnieta eta Astigarra ga bi azken hauen zati bana bere mende zeudelarik. Aipatu herri horrek bazuen bere autonomia ekonomikoa, baina erregeak izendatutako Alkate Nagusiak zuen epaitzeko eskubide osoa, bai arlo zibilean, bai kriminalean. Hau, Aiztondoko semea, baina usu Madrileko Gortean enplegatua izan ohi zen. Ordezkarien bidez betetzen ziren bere funtzio judizialak (Gorosabel 1967 II: 472).

5. IAA, C, 28, N^o 2.

6. GAO, Tolosa, PT, IPT, 1542 leg., 152 or.

7. IAA, C, 444, N^o 19. Bi motatako salaketak ikusi ditut 19 orriko espedienteetan: lehena herritik kanpo sari ibiltzea eta bigarrena dantzan jende aurrean egitea, apaiza izanik ere.

8. Arrazola 1988: 475. Nire uste apalean, transkribaketan bada akats txiki bat. Maria A. Arrazolak honela eman zuen «... ya Don Adriano O Rector de la parroquia del dicho lugar de Alquiza...». Honela beharko luke izan, «...ya Don Adrian de Urrutia...».

9. GAO, PT, IPT, 1599 leg., 206 or.

Asteasuk 1587an 665 biztanle bazituen, baserrietan bizi ziren gehienak, baina bi udaletxe beren inguruan herri-gune bana zutela: San Pedro parrokia eta Arbiderena Elizmendir eta Beheko Plaza inguruan Berueterena (Ayerbe 1983)¹⁰. Santiago Piqueroren datuei jarraituz (1991: 112, 183), esan daiteke Asteasuko biztanleria piskana-piskana igotzen joan zela, baina bat-bateko jauzi beldurgarrizkorik eman gabe: 1587an 665 biztanle, 1632an 668 biztanle, 1733an 1.000 biztanle. Agian, saltorik handiena 1632-1733 urteetan eman zuen. Bengoetxeako Anbrosioren garaian, 1581-1624 urteetan biztanleria oso gutxi hazi zen. Alkiza eta Asteasuko etxebizitzak eta biztanleria erkatuz, Anbrosioren garaian bi bider handiagoa zen Asteasukoa.

3. Bengoetxeako Anbrosioren bizitza

Bost zatitan eratuko dut atal hau, Anbrosioren jaiotetxea, sendia eta ahaideak, Asteasuko etxebizitzak, lan-urteak eta testamentua nahiz honen ondorioak.

3.1. Anbrosioren jaiotetxea

Bere hitzak dira honako hauek:

Yten mando, (Mando, Amatteo de Roteta)¹¹, ya Magdalena de Uruzola¹² su muger y mi sobrina treinta ducados

para ayuda de rehazer la Casa de Bengochea de donde yo desciendo y que es en el dicho lugar de Alquiza...¹³.

Duda izpirik ez dute eskultorearen testamentuko hitzok. Anbrosio Alkizan, Arana bailarako Bengoetxea baserrian jaio zen. Gaur zutik dirauen bi bizitzako etxe bikainak geroago berrikuntza-aren bat izango zuen, baina xiv. mendean bazen Behengoa zeritzon baserria Alkizan, non 1396an Behengoako Joango bizi zen (Roldan 1991 I: 86-92). Orube beraren gainean, historian zehar aldatzen eta berritzen joan da euskal baserriaren arkitektura¹⁴. Hamalagarren mendean bakarrik ikusi dut *Behengoa*, hatxe eta guzti; hurrengo mendean geroztik *Bengoetxea* izenarekin topo egin dut beti.

Bengoetxeako Anbrosio 1552 aldera jaio zela gaur guztiz onartua da, eta hori ziurtatzeko 1599ko zita batean oinarritzen dira. Sesmako elizako aulkiteriarekin loturiko prozesuan Bengoetxeak bere lekukotasuna eskaintzean, gutxi gora-behera berrogeita zazpi bat urte zituela esan zuen, 1599an (Arrazola 1988 II: 181-182).

3.2. Sendia eta ahaideak

Anbrosioren gurasoen berririk ez badut ere (honen ezkontza-hitzarmenean ez dira ageri), hala ere jaiotetxean bizi zen Bengoetxeako Migel

10. Nik ezagutzen dudan Asteasuko etxebizitzaren zerrendarik zaharrena horixe da, 1686koa. Urte horretako 163 etxebizitzaren izenak utzi zituen Asteasuko notarioren batek. Gero, Bengoetxeako Anbrosioren etxebizitzaz ihardutean, berririo aipatuko dut, alkizar eskultorearen aipua baitakar.

11. Marra batez ezabatua dago testu orijinalen parentesi artean ipini dudana.

12. GAO, PT, IPT, 1589 leg., 174/175 or. Nire ustez, Uruzolako Madalenak ama Bengoetxea baserrian jaioa izango zuen, eta aita, berriz, Uruzola Bengoetxeako Migel, inoiz Bengoetxeako Migel bezala ezagutua. Hau Alkizako Kontzejuak xvi. mendean eraiki zuen leran errotako maizterra izan zen 1595-1596 urteetan. Gainera, urte horretan Alkizako San Martin parrokiako diruzaina zenez, elizaren egitura amaitzeko obrak egiteko hitzarmenean parte hartu zuen Arpideko Joan erretore eta Urrutiako Adrianekin. Ibidem, 1542 leg., 150-153 eta 167-171 or.

13. GAO, Tolosa, PT, IPT, 1599 leg., 204 or. edo Arrazola 1988: 473.

14. Santana 1993: 9. Izena eta orubea ez dira aldatzen, baina etxeak aldatu egiten du bere itxurakera denbora aurrera joan ahala.

anaiaren aztarnak badituz, bi bider, 1580 eta 1587an Alkizako Kontzejuko errejidore eta juradu izan zen eta.

Anbrosio Asteasuko Iturrietako Katalinarekin ezkondu zen. Asteasuko parrokiako Sakramentuen Liburuak hitzez hitz honelaxe dio:

Iten, a beynte y cinco del mes de Septiembre hize matrimonio entre Ambrosio de Bengoeche y ... siendo testigos el doctor Iturrieta, y el Bachiller Igoia, y Domingo de Iturrieta y otros muchos y fueron belados a veynti y ocho de enero siendo padrinos Martin de Brigadier Iribar y su mujer Martina Martinez de Iturrieta¹⁵.

Bengoetxeako Anbrosio Asteasun, 1581-IX-25ean ezkondu zen, baina aurrez urte berean, martxoaren hogeita hamarrean ezkontza-hitzarmena egina zuen Iturrietako Katalinarekin Asteasuko notario zen Arbideko Pérezen aurrean. Horretarako, Katalinari Iturrietako Pedro eta Igolako Marina gurasoek lagundu zioten bezala, Bengoetxeako Anbrosiori Arpideko Juan apaizak soilik eskaini zion lekukotasuna¹⁶.

Anbrosio eta Katalinak Asteasun, 1588-IV-9an, Joanes izeneko seme bat bataiatu zuten, aitapontekoa Urrutiako Joanes eta amapontekoa Etxeandiako Maria zirelarik¹⁷. Anbrosioren testamentuan beste seme bat ere, Joan Martínez, ageri da, Antxietako Marinarekin ezkondu zena¹⁸. Gero, testamentuari buruz ihardutean,

berrito hitz egingo dut horietaz. Dena dela, duda bat dut nire baitan eta hauxe da: Joanes eta Joan Martínez bi seme ezberdin izan ote ziren? Nire us-tez bai. Hemen eta orain, ezagutu ditudan beste zenbait ahaidez, ezkontza-senide, senide eta ilobaz ariko naiz.

Emaztearen aldetik, Iturrietako Pedro, bai ezkontza-partidan, bai Donostiako San Bizenten Anbrosiok egindako obrak kobratzean¹⁹, eta baita bere testamentuan ere agertzen da. Anbrosioren emaztearen anaia zen, apaiza; batzuetan doktore eta zenbaitetan lizentziatu tituludun azaltzen da. Ezkontzako lekukotasuna emateaz gain, testamentuan albazea izendatu zuen Anbrosiok, Urrutiako Adrian, Alkizako erretorearekin batera, eskultorearen nahikoa etxeko, noski. Frogatzeko dago Iturrietako Domingo, ezkontzako partidan ageri dena eta Anbrosiori hainbat eskritura egin zizkion notarioa pertsona bera ote zen. Iturrietako Joan zen Asteasuko erretorea mendearen azken aldera.

Alkizako Bengoetxearen aldetik, berriz, hiru senide eta lau iloba identifikatu ditut. Anbrosio Asteasura ezkondu zenean, Bengoetxeako Migel, Alkizako errejidore eta juradu zena bizi zen jaiotetxean, baina 1600 aurretik, Migel Urruzola Bengoetxearen beste alaba bat ezkondu zen Aiako Mateo Rotetarekin jaiotetxera eta Anbrosiok bere iloba zela dio testamentuan. Uste dut, beraz, kanpotik indarberritu zela Bengoetxea jaiotetxea. Anbrosiok bere

15. DEHA, Asteasuko (3) Libro de Casados, (1565-1753), 92 or. Emaztearen izenik ez nuen deszifratzerik lortu, nahiz eta Artxiboko arduradun Josan Garrok leialki zenbait ikertzailei kontsulta bideratu.

16. GAO, Tolosa, PT, IPT, 1584 leg., 48-49 or. (Insausti 1957: 421). Urte horretarako gurasoak hilik zeuden, baina senideek ere ez zioten lagundu, edo agian beharrik ez zuen.

17. DEHA, Asteasu, Bataio liburua. Bengoetxea Ochoa El Sastreko abizenak zituen.

18. DEHAko ez Asteasu, ez Alkizako garai hartako Sakramentu Liburuetan ez dut aurkitu ezkontza horren partidarik. Juan Martínez honen anaia, Bengoetxea Ochoa el sastreko Juanes eta Irune Larrunbideko Madalena 1612-II-12an ezkondu ziren Asteasun.

19. Ibidem, 1582 leg., 145 or.

testamentuan Bitoria Urruzola izeneko beste iloba bat ere aipatu zuen. Nire ustez, hau Madalenaren ahizpa zen.

Beste arlo bati ekinez, Anbrosiok, ezkondu zenean, ez zuen jaso berari zegokion lejitimarik, eta gainera, Bengoetxeako Migel zenbaitekin zorretan zebilen. Mateo Bengoetxea baserrira ezkondu zenean, honen aportazio ekonomikoaz baserriko egoera ekonomiko konpontzen hasi zen. Horregatik, Mateori, ezkondu zenean, bere osaba Anbro시오 eskultoreak jaiotetxetik jasotzeko zeukanaren ordainagiria luzatu zion. Larraulgo Larrolako Domingo eta Asteasuko Lizolako Joansekiko zorrak ere ordaindu zituen Bengoetxea baserriak²⁰.

Bengoetxeako Anbrosioren hirugarren senidea agertu zait garai hartako Alkizan. Bengoetxea Martiategiko Pedrok, izen bereko etxean gaixorik zegoela, Asteasuko Domingo Iturrieta-ekin testamentua egin zuen eta hor Urruzola Bengoetxeako Migelen koinatua dela dio; beraz, Anbrosioren anaia²¹.

Anbrosiok bere testamentuan Mateo eta Madalenaren bi seme-alaba, Anbroσιο eta Mariana aipatzen ditu, beraz, iloba txikiak, eta Anbroσιο hau, agian, besoetakoa izango zuen eskultoreak.

3.3. Bengoetxeako Anbrosioren Asteasuko etxebizitzak

Katalinaren gurasoek alabari Asteasuko Otxoadendariarena kaletxea eta Amusuturri baserria bere alorrekin utzi zizkioten²² eta Anbrosiok bere testamentuan bi aldiz Otxoa El Sastre zeritzon etxean bizi zela esan zuen²³. Dena dela, zahartzaroko begiramenduz, etxe horiekiko eskubide guztiei gurasoek ez zieten uko egin. Anbroσιο eta Katalina etxe horretan jarri ziren bizitzten. Lehen esan dudan bezala, Joanes semea izan zutenean, hari jarri zioten bigarren abizenak horixe frogatzen du, baina Anbrosiok bere lanbideak eraginda, tarteka-marteka beste egoitzaren bat ere izan zuen, adibidez, 1598an Iruñean (Biurrun 1934-1935: 285-286).

Iruñean igarotako garaia salbu, beste urteetan Asteasun bizi izan zen eta, gainera, 1593ko San Joanetan Asteasuko errejidore izatera ere iritsi zen; horren aitortza berak testamentuan eta Legarrako Juan Martínez notarioak utzi ziguten²⁴. Halaber, badira Anbrosiok Asteasun utzitako beste frogak batzuk, adibidez, Asteasuko Kontzejuaren San Joanetako hauteskundeetan behin baino gehiagotan parte hartu zuen²⁵. Dena den, denboraldi luzeak, bere lanbidea zela eta, herritik kanpo egin zituen. Pentsatzen dut eskultore batek,

20. Ibidem, 1589 leg., 174-175 or. Rotetako Mateok 1601-III-2an 80 dukat eman zizkion Bengoetxeako Anbrosiorei, honek Bengoetxea baserritik, hau da, Urruzola Bengoetxeako Migelengandik zeuzkan hartzekoak jasotzeko. Hurrengo egunean, martxoaren hiruan, Migelek zorrak kitatu zituen Larrolako Domingorekin.

21. Ibidem, 1589 leg., 68-70 or. Bengoetxeako Pedrok, 1601-III-11an, Mariategi etxean egindako testamentua da. Apaiza zela uste dut, arrazoi hauengatik: testamentuaren itxura, San Martin parrokiari egin zion emaitza, neskameari eman zizkion eskubide eta izendatu zuen albazearengatik, hots, Arpideko Juan erretorea.

22. Ibidem, 1584 leg., 50-51 or. Katalinak, ezkontza-hitza egin zuen egun berean, hots 1581-III-30ean, beste dokumentu bat ere gauzatu zuen, non gurasoei bere lejitima hartu zueneko ordain-agiria egin zien.

maisua izaki gainera, tailerren bat izango zuela. Non ote zeukan hori kokatua? Amusuturri baserrian? Dena dela, ez dut inongo aztarnarik aurkitu.

3.4. Bengoetxeako Anbrosioren eskulturagintzako urteak

Sebastián Insausti, Antxietak eta Bengoetxeak Asteasun ezagutu zutela elkar esatera ausartu zen, baina bata maisu eta bestea ikasle izanik. Horrek esan nahi du 1572-1575 urteetan elkarrekin lan egin zutela eta horregatik Bengoetxeako Anbrosio eskulturagintzan, 1575erako behintzat hasia zela²⁶.

Anbrosio 1575ean Antxieta maisuarekin Asteasun lanean zebilen.

1583-1590 urteetan Donostiako San Bizente parrokiako erretaula nagusia, Joanes de Iriartek lagundurik, egin zuen. Bi aldiz tasatu zieten obra, 1586 eta 1592an.

1590ean Gazteluko parrokiako gurutzea landu zuen.

1594 baino lehen Donostiako San Bizente parrokiarako bigarren erretaula egina zeukan.

1594an Tuterako fraile sermoilarien San Jeronimoren irudia burutu zuen.

1596-1600 urteetan Nafarroan ibili zen lanean; 1598-1599 urteetan bederen Iruñean bizi izan zen, Kaskante, Aezkoako Hiriberri eta abarretan lan eginez.

1600 aldera Nafarroako Aezkoako Hiriberriko erretaula bukatua zuen.

1601ean, Iruñean bigarren kontratua egin zuen Berastegiko erretore eta alkatearekin²⁷.

1604-1608 urteetan Tolosako San Frantzisko elizako erretaulak eraiki zituen.

1609-1611 urteetan Hernaniko parrokiako sagraioa eta San Joanen irudia gauzatu zituen.

1612-1614 urteetan Zarauzko parrokiako San Frantzisko Kofradiarentzako erretaula.

1615erako Tolosako lehen aipatutako erretaula amaitua zuen.

1617an Erreterriako parrokiako sagraioa taxutu zuen.

Datarik gabe, berriz, Donostiako San Telmoko hamar irudiak ere Bengoetxeako Anbrosiok, ezizenez *gorrak*, egin zituen.

23. Nire ustez, kaletxe honi hiru eratara behintzat deitu zitzaion: 1581 eta 1683an Otxoadendarienea, 1622an Ochoa El Sastre eta 1742-1823an Dendari.

24. GAO, PT, IPT, 1540 leg., 154 or. Asteasuko hauteskundeak akta dago aipatu dokumentuan eta Bengoetxeako Anbrosiok ere sinatu zuen.

25. Bengoetxeako Anbrosio, 1591-V-1ean Asteasuko Anbrosio Larrasororen aitapontekoa izan zen, DEHA, Asteasu, Bataioak I.

GAO, PT, IPT, 1540 leg., 147 or., Asteasuko Errejimenduak, 1593-VI-8an egindako bilkuran parte hartu eta akta firmatu zuen Anbrosiok eta 1599-IX-25ean, notaritzan lekukotasuna eman zuen. Ibidem, 1589 leg., 142 or.

Asteasuko Udal Hauteskundeetan, "En la sala de Regimiento..." izenekoan, 1606 eta 1612. urteetan lekuko eta partaide izan zen. Ibidem, 1552 leg., 138/139 or. eta 1553 leg., 176 or.

26. Arrazola 1988: 181-184. Nik erabili dudana laburpenik zuhur, oso eta ederrena hau da. Anbrosioren lan-urteei buruz emango ditudan datu gehientsuenak Arrazolaren obra horretatik hartu ditut; beraz, beste ezer ez adieraztean, horri zor diot datua.

Goian eman dudan zerrenda osoan agertzen diren obra eta datak dokumentatuak daude. Badira, horietatik at, duda-mudako gehiago ere.

Anbrosiok eta beste hainbat eskultorek egin zituzten obrak tasatuak izaten ziren ordaindu aurretik, eta batzuetan behin baino gehiagotan. Anbrosiok lau bider burutu zuen zeregin hori: Balterrako erretaula 1598an, Etxalarkoa 1601ean, Bilboko San Antongo kapera nagusikoa 1606an eta Larraia parrokiako bi erretaula 1617an (Arrazola 1988 II: 182-184).

Eskultore alkizar honek gauzatutako sagrario eta erretaulekin erlazionaturik dauden hogeiren bat dokumentu notarial behintzat irakurri ditut, bai bere obren lehen hitzarmenak, bai tasaketenak, bai botere-emateak. Eskritura asko Asteasuko bi Iturrieta notarioekin bideratu zituen. Bengoetxeak, sarritan, obrak eskuratzeko lehen hitzarmenak berak egiten zituen eta, ondoren, bere eskolako eskultore herrikide nahiz auzokoei eman eta hauek egin ohi zituzten maisuak hitzartutako obrak. Horrek suposatzen du Anbrosiok ospea eta itzala izateaz gain, bazuela bere ardurapean hitzartutako edo ikaslerik.

Adibidez, 1600eko hitzarmen baten berri emango dut jarraian:

1600, Martin de Goroa de Eznarrizaga, contrato a su hijo Domingo con Anbrosio de Bengoechea, para que le sirviera en el dicho oficio de escultor y imaginario y le enseñase en el dicho

oficio segun y como se acostumbra agora...²⁸.

Goroako Domingoren kasua dokumentatua eta ezaguna da, baina Bengoetxeako Anbrosiok eskola bat osatu zuen bere inguru eta garaian, zeini Sebastián Insaustik Asteasuko Eskola deitu zion. Hemen emango ditudan eskultore guztien izen-abizenak 1600 aldera aritu ziren eskulturagintzan eta, gainera, Anbrosio eskultorearen babesean, bat berarekin hitzartuta, batzuk lankidetzan, zenbait bere ardurapean edo. Goroako Domingo asteasuara 1600ean Anbrosiorekin lanbidea ikasten hasi zen. Asteasun ala Nafarroan? Hori ez dakit, garai hartan Nafarroan baitzebilan alkizarra²⁹. Sebastián Insaustik duda-mudatan ipini zuen Larreako Jeronimo Loperen kasua, nahiz eta harremanak izan eta eragina ikusi. Hau tolosarra zen edo ez, ez dago dokumentatua, baina herri horretan bizi izan zen bitzta osoan. Honek semea ere eskultore izan zuen eta aita-semeak Albiztur eta Andoainen aritu ziren eskulturagintzan. Arrazolak (1988 II: 239) Bengoetxearen parekotzat jotzen du eta Antxietaren eskolakotzat, «como uno de los más aventajados discípulos de la escuela de Anchieta».

Conocemos en Asteasu y sus alrededores una gran floración de artistas en la primera mitad del siglo XVII. Podemos citar a Joanes de Cordoba y Arbiza, natural de Soravilla, Domingo de Ureta y Miguel de Goroa, Joanes de Cialceta y Domingo de Goroa, estos últimos na-

27. IAA, C, 443, Nº 36. Dokumentuak 36 orrialde ditu. Iruñean. 1601-I-1ean, Intzako Andres (testuan Ynza) erretorea eta Etxeberriako Joanes (testuan Echeverria) alkateak alde batetik, eta bestetik, Bengoetxeako Anbrosiok eta Joseph Velazquez-ek lehengo eskritura berritu zuten, batek erretaula eta Velázquez-ek hiru urte barru gurutzea burutzeko hitza eman zuten. Dokumentuak baditu beste zenbait xehetasun: kontrol tasazio eta ordainketei buruzkoak.

28. GAO, PT, IPT, 1589 leg., 162 or. Lau urtetako hitzarmena egin zuen. Arrazola 1988 II: 183.

29. DEHA, Asteasu, Heriotzak, 1. Goroako Domingo eskultorea, 1622-X-21ean Madrilen hil zen, 40 urte zituela: «Domingo de Goroa escultor que murió en Madrid...».

cidos todos en Asteasu. Precisamente habremos de ocuparnos de algunos de estos artistas para rectificar ciertas atribuciones de obra a Anchieta (Insausti 1957: 47).

Asteasuko eskola hori osatzen zuten izenak aletuko ditut jarraian, lehen esandakoez gain.

1. Cordobako Joanes Arbiza bezala batzuetan agertzen zena eta inoiz Arbizako Joanes edo Cordobako Joanes sorabillarrak Alkizako erretaula zaharrean eta Amasan bere emaitzak utzi zituen.

2. Uretako Domingo asteasuarrak Hernanin Anbrosiorekin lan egin zuen.

3. Zialzetako Joanes asteasuarrak Errezilgo erretaula nagusia egin zuen XVII. mendean.

4. Goienetako Jeronimo alkizarrak Gazteluzarko Joan eskultore nafararen alaba Mariarekin, 1599-V-1ean ezkontza-hitzarmena egin zuen eta hauxe aitortu zuen (Huarte 1925: 17):

Jeronimo de Goyeneta, mancebo ensamblador natural del lugar de Alquiza, en Guipuzcoa, el cual, en el curso del contrato dijo, sin jactancia ni arrogancia alguna (...) que es buen oficial en su

arte (...) con que poder ganar de comer para sí y su muger y su familia, y no tiene otra cosa alguna³⁰.

Antxietak bere hazia erein zuen Asteasun eta XVI. mendearen azken aldean; horregatik, Bengoetxea ere ez zen gutxiago izan, zepa berriak Aitzondo eta inguruetan eman baitzituen; diodanaren lekukotzat lehenxeago eman ditudan izenak jartzen ditut.

Zenbait sagrario eta erretaularen ordainketak eskuratu ezinik ibili zen Bengoetxeako Anbrosio. Lau kasuri buruzko dokumentazioa erabili dut esku artean. Lehenik, Tolosako San Frantzisko elizako obrak 1608an amaituak zituen arren, handik zortzi urtera ere, zehazkiago 1616-III-19an, 1819 dukat hartzeko zegoen (arrazola 1988 II: 437-451). Anbrosioren semea, Joan Martínez kobrantza hauetako gestioak egiten ibili zen aita hil ondoren.

Bigarren kasuari dagokionez, Hernaniko parrokiaren egindako lanengatik, 1622ko testamentuan 1.800 dukat jaso gabe zegoela esan zuen.

